


## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Proiektua arrakastaz abian jartzeko eta gure balio proposamena bezeroei modu eraginkorrean helarazteko, hainbat kanal estrategiko erabiliko ditugu. Helburua bezeroei segurtasuna, erraztasuna eta konfiantza eskaintzea da, eta horretarako komunikazio, banaketa eta salmenta kanalen bidez jardungo dugu.

Lehenik eta behin, komunikazio kanalak izango dira gure zerbitzuaren inguruko informazioa zabaltzeko eta bezeroei balio proposamena helarazteko tresnak. Sare sozialak (Instagram, Facebook, TikTok, LinkedIn) gure mezua zabaltzeko eta bezeroekin interakzioa sustatzeko funtsezkoak izango dira. Segurtasunari eta emakumezko gidarien garrantziari buruzko eduki interesgarriak eta hezigarriak sortuko ditugu, baita iragarkiak, bideoak eta informazio grafikoak ere. Edizio eta eduki hori guztion segurtasuna eta zerbitzuaren onurak azpimarratuz egingo dugu, gure zerbitzuaren garrantzia eta balioa bezeroei modu argian transmititzeko. Era berean, **email marketing kanpainak** ere erabiliko ditugu, bezeroek interesatuak izan daitezkeen eduki eta informazioa jaso dezaten, horrela harreman estua eta iraunkorra mantenduz



**Banaketa kanaletan** gure zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatuko dugu. **Aplikazioa** izango da bezeroek zerbitzua kontratatu eta erabiltzeko plataforma nagusia. Bertan, erabiltzaileek erreserbak egin ahal izango dituzte, bidaiak kudeatu, eta baita segurtasun botoia erabiliz laguntza eskatu ere. Aplikazioaren erabilgarritasuna eta erraztasuna garrantzitsuak izango dira bezeroen konfiantza irabazteko. Gainera, **GPS eta mapen integrazioa** aplikatuko dugu, autobusen kokapena eta erabiltzaileen helmuga modu eraginkorrean kudeatzeko. Horrela, bidaiak optimoak izango dira, eta erabiltzaileek denbora gutxienean bidaia izango dute.



Azkenik, **salmenta kanaletan** gure zerbitzua eskura jartzeko hainbat aukera izango ditu bezeroak. Aplikazioaren bidez, bezeroek hileko kuotak ordainduz zerbitzua eskuratu ahal izango dute, eta hileko plan desberdinak aukeratu ditzakete, horrela zerbitzuaren kostua pertsonalizatu ahal izateko. Aplikazioak, gainera, bezeroei segurtasuna eta erraztasuna eskainiko die, ordaindu eta zerbitzuari buruzko kudeaketa erraztuz. Webgunea ere izango da salmenta kanal bat, non bezeroek zerbitzuei buruzko informazioa eskuratu ahal izango duten, planak kontratatu eta hileko kuotak ordaindu.

Laburbilduz, komunikazio, banaketa eta salmenta kanalak modu integratuan erabiliz, bezeroei segurtasuna, erraztasuna eta konfiantza eskainiko diegu. Sare sozialak, aplikazioa eta webgunea erabiliz, gure balio proposamena helaraziko dugu eta bezeroek zerbitzua modu eraginkorrean

eta seguruan jasoko dute. Horrela, gure zerbitzua bezeroengana helarazteko eta beharrezko segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea eskaintzeko oinarri sendoa ezarriko dugu.